



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2010-02-10**

VIII. URTEA 1924. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

MIREN GONZALEZ ARTISTA

«Asko urduri ere jartzen dira, baina denok daukagu eskaintzeko zerbait»

TOLOSA 'Fiordoan trukean' proiektua jarri du ikusgai GKO galerian; oraingoan lan abstraktuagoak egin ditu tolosarrak

ESKAITZA Erakusketako izenburuak iradokitzen duen moduan lanak saldu ordez trukean eskaintzen ditu 4-5



L.TERRADILLOS

Torturaren Aurkako Eguna izango da larunbatean

ZIZURKIL Joxe Arregi zizurkildarra hil zeneko urteurren egunean mendi martxa egingo dute eta baita lore eskaintza eta bazkaria ere 3

MARIA ANGELES UGIDOS ILE-APAINZAILA

«Hamalau urterekin hasi nintzen lanean»

ALEGIA 50 urte lanean eman eta gero 65 urte bete zituen egunean bertan hartu zuen erretiroa 2



Tolosako inauterietarako eskaintza berezia

angula kiloa 390€

arraindegia honen eskutik dator eskaintza:

ARTOLA arraindegia • Tel.: 943 674 406
Korreo 33 - TOLOSA

festa on guztioi!

E Elkarrizketa

MARIA ANGELES UGIDOS | Ilea-paintzailea

Alegia » 14 urterekin hasi zen lanean Maria Angeles Ugidos eta 50 urte eman ditu ilea moztzen eta orrazkerak egiten herriko plazaren ondoan zuen ile-apaindegian.

IMANOL GARCIA

Maria Angeles Ugidos (Alegia, 1945) ile-apaintzailea jubilatuta berri da. Errege Eguneko bezperan 65 urte egin zituen eta egun horretan bertan azkeneko aldiz egin zuen lan bere ile-apaindegian. Alegiako plaza ondoan izan du bere lantokia. Herriko adineko emakume askok faltan botatzen dute bere betiko ile-apaintzaileak ofizioa uztea.

Zenbat urtetan aritu zara lanean?

50 urtez aritu naiz. 14 urterekin hasi nintzen eta aurreko Pilar Egunean 50 urte bete nituen lanean.

Hainbeste urteren ondoren go-go izango zenuen jubilatzeke.

Alde batetik bai, nekatu egiten zarelako. Bestetik, faltan botatzen dut, hainbeste urtetan aritu eta gero.

Lan nekagarria da, beraz.

Zutik ordu asko eman behar dituzu. Hankak kargatu egiten dira, besoak gelditu gabe daude eta bizkarrak ere nekatu egiten da. Oso nekagarria da.

14 urterekin dagoeneko lanean...

Eskola ziurtagiria lortu eta gero, Donostiako Guallar akademian hasi nintzen. 14 urterekin bukatu nuen eta lanean hasi nintzen. Orduan denak 14 urterekin hasten ziren lanean, batean edo bestean.

Zuk zeuk aukeratu zenuen ile-apaintzaile ikastea?

Bai, nire gustuko lana nuen. Gustura egiten duzun lana hobeto egiten duzu. Errazago egiten dituzu orrazkerak eta gustura aritzeak asko balio du.

Eta non hasi zinen lanean?

Etxean hasi nintzen lanean eta bertara jendea etortzen zitzaidan. Gustura gelditzen ziren eta gero beste bat etortzen zen, eta beste bat... eta horrela hasi nintzen. Bi urte egin nituen jendea etxean hartzen. Orduan ez zegoen butanorik. Ekonomikan lapikoan ura berotu, baldean jarri eta gero txarro batekin botatzen zen burua. Gero butanoa eta berogailua etorri zirenean, ile-apaindegia jarri nuen 16 urterekin.



PATXI RENOBALAS

«Zerbait berrituta, baina lehengoko orrazkerak etortzen dira berriro»

Beraz, 16 urterekin zure negozioa jarri zenuen martxan.

Pixkanaka hasi nintzen. Lehenengo burua garbitzekoa, gero lehor-gailu bat, gero beste bat... Pixkanaka, erabat muntatu gabe hasi nintzen. Ez orain egiten den bezala, zorretan sartuta.

Emakumeak bakarrik joaten zitzaizkizun?

Hasieran denak emakumeak etortzen ziren. Gizonezkoak bizarginera joaten ziren. Orduan bizarginak hiru bat izango ziren.

Hasi zinen garaian, zenbat ile-apaindegi zeuden Alegian?

Orduan bakarra zegoen. Ni bigarrena izan nintzen.

Zenbat egunetan egiten zenuen lan hasieran?

Egunero egiten nuen lan. Hasi nintzenean larunbatean egun guztian egiten zen, gauean berandu arte izaten zen gainera, eta igande goizetan lana egiten zen. Gero etorri zen agindua esanez igandetan ezin zela lana egin eta guk pozik hartu genuen. Ixten ez zuenak multa jasotzen ziren. Bigarren goan bikoitza eta hirugarren goan negozioa



PATXI RENOBALAS

ixten zioten. Lanean aritu eta multajatsotzeko... Jendea ohituta zegoen igandetan orrazkera egin berriarekin ateratzen, baina gero segituan moldatu zen horretara. **Urte guzti horietan formakuntza gehiago izan zenuen?** 15 urterekin tindaketa ikastera

joan nintzen Bartzelonara, horretan espezialitatea egiteko. Bestalde, Espainiako Txapelketa ikustera Kordobara joan nintzen gurasekin. Gero Madrileren Europako Txapelketa ikustera joateko autobusa antolatuta zuen Ilea-apaindegien Sindikatuak. Batez ere Alexandre handia esaten zitzaiona ikustera joan ginen. Garai hartako

artistak eta printzesak berak orrazten zituen. Beste urte batean Bartzelonara joan ginen Munduko Txapelketa ikustera. Horrez gain, estetizistaren titulua ere ateratu nuen.

Beti ikasten, beraz.

Bai, modak aldatu egiten dira eta beti ikasten joan behar duzu.

Zertan aldatu da orrazkera zu hasi zinenetik?

Lan asko egiten zen orduan. Edadekoak mototsarekin eta onda edo izurrekin ibiltzen ziren. Gazteagoak ilea moztuta izaten zuten. Modak bueltaka ibiltzen dira eta lehengokoa etortzen da berriro. Orain 60. eta 70. hamarkadetako orrazkerak ikusten dira. Zerbait berrituta, baina lehengoko orrazkerak etortzen dira berriro. Lehengokoa nola banekien, hobeto hartzen nion orrazkera horiei. Arropatan ere lehengoko modak etortzen dira.

Tindaketan ere aldaketak izango ziren. Lehen ile-gorriak ezingo zen jarri, adibidez.

Orduan bekatu zen hori. Kolore naturalak ematen ziren: horia, gaztaina-kolorea, beltzak... eta horietan argi goak edo ilunagoak.

Ile-apaindegitik kanpo lan egin izan duzu?

Garai bateko antzerkietan ez ziren ileordeak erabiltzen, aktoreen ilearekin egiten zen lana. Pertsonaiaren arabera orrazkera egin behar izaten zenuen. Igandetan egiten genuen hori.

Txutxu-mutxuka asko egiten denaren fama dute ile-apaindegiek.

Nik telebista nuen eta hori jartzen genuen. Hor azaltzen ziren ospetsuei buruz esandakoak ikusten genituen eta telenobelak ere bai. Gainera, fama ile-apaindegiek dute, baina gizonezkoen tabernetan isilik inor ez da egoten.

Ile-apaintzaileak nora joaten zartete ilea mozttera?

Zerbait ezberdina egin nahi duzue beste batengana joaten zara. Gero, gainera, beti gustatzen zaizu ikustea besteek nola egiten duten, xehetasunak ikustea. Baina gehienetan bakoitza moldatzen da.

Normalean ile-apaindegiz ez du aldatzen jendeak.

Gehienak nahiko finkoak izaten dira. Eskua hartuta daukazu bere gustura eta orduan ez dute aldatu nahi izaten.

Zer gustatzen zitzaizun gehien egitea?

Ile bilduak egitea. Lehen lan handiko ile bilduak egiten ziren. Orain festetako eta ezkontzetako egiten dira batez ere. Lan gehiago zuten, baina gehiena horixe gustatzen zitzaidan.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Lan bila.** Gizonezko bat lan bila dabil: pertsona helduak zaintzen, baserriko lanak egiten edota beste edozertan lan egiteko prest dago.

Interesa duenak dei dezala 679 80 38 70 telefono zenbakira.

ESKAITZA

■ **Bigi Garbitasunak.** Alfonbrak,

etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Telefonoak: 638 94 46 04 (Gurutze) edo 695 70 82 71 (Belen).

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

Laburrak

Ate-irekiak 16:00etan Hirukide-Jesuitinetan

TOLOSA ■ Gaur, ate-ireki jardunaldia antolatuta dute Hirukide-Jesuitinetan. 16:00etatik aurrera izango da eta bertan hurbiltzen diren guztiak heziketa proiektuaren eta zerbitzuen berri eman eta instalakuntzak erakutsiko zaizkie.

Tolosa kantariren entsegua, gaur 20:00etan

TOLOSA ■ Gaur Tolosa Kantarik antolatuta, kantu entsegua izango da Tolosako Musika Eskolan, 20:00etatik aurrera. Hurrengo entsegua otsailaren 24an izango da. Hilabete honetako Tolosa Kantari dantzarren hilaren 27an izango da.

Azken erailketa salatzen elkarretaratzea Triangulon

TOLOSA ■ Herenegun Barakaldon 41 urteko gizon batek bere ama hil zuela salatzen Emakumeen Mundu Martxarako Plaformak deituta elkarretaratzea egingo du Tolosaldeko Bilgune Feministak gaur 19:30ean Tolosako Triangulo plazan.

Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdi: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzarano autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Larunbatean Torturaren Aurkako Eguna izango da Euskal Herrian

Zizurkil ■ Joxe Arregi torturatu eta erail zutela 29 urte beteko dira. Mendi martxa, lore eskaintza, ekitaldia... egingo dituzte.

ERREDAKZIOA

1981. urtean Joxe Arregi zizurkil-darra atxilotu eta bederatzia egunez bortizki torturatu izan zen. Bederatzia egun inkomunikaturik igaro eta gero, komisariako infernua atzean utzi zuen, baina Carabanchel espetxeko ospitalean sartu behar izan zuten benetan egoera tamalgarria. Bere gorputza ubelduraz eta erreduraz josita zegoen, eta gutxi iraun zuen bizirik. Otsailak 13 hartako bere hitzek ongi adierazten dute Joxe Arregik pairatu behar izan zuena, «oso lasta izan da» esan eta heriotzaren marraigarro baitzuen.

«Tortura ohikoa da gaur egun ere eta data hauetan gogoan izan nahi ditugu Euskal Herrian torturatuak izan diren herritarrak, eta bereziki torturak hil dituenak. 2010. urteko otsailaren 13an oraindik orain, torturaren errealitatearekin aurrez aurre aurkitzen gara, atxilotuen inkomunikazioak horretarako zigorgabetasun guztia eskaintzen dielako torturatzailei», azpimarratzen du Amnistia-aren Aldeko Mugimenduak. Azken 40 urteotan, 7.000 euskal herritar



laz egin zuten lore eskaintzako unea. I. GARCIA

baino gehiago izan dira basakeria hau sufritu dutenak «Euskal Herriarren aurkako errepresio erotan unean-uneko gobernuak tortura egunero erabili du». AAMtik «otsailaren 13an hainbat herri eta auzoetan torturaren aurka burutu diren ekimenetan parte hartzeke deia luzatzen dute» eta «ia komunikabide gehienak, baita eskualde honetako zenbaitek ere, politikariekin batera, torturaren aurrean beste aldera begiratzea nahiago izan dute», adierazi dute.

Eskualdean ere torturatuak

Eskualdean izan diren azken bi torturatu artean daude esaterara-

TORTURAREN INGURUKO MAHAI INGURUA

Martxelo Otamendi tolosarra, *Berrriko* zuzendaria dena eta torturatu izandakoa, otsailaren 13an, 11:30ean Iruñeko Gurutze plazako ikaste-txean torturaren inguruko mahai inguruan izango da. Amnistia Internazional-eko Fernando Armendariz, Comité Para la Prevención de la Tortura en el Estado Español-eko Jorge del Cura, Torturaren Aurkako Taldeko Lorea Bilbao, Alfonso Zenon abokatuak, Matti Iturralde medikua eta Oihana Barrios psikologoarekin batera arituko da.

Inkomunikazioak torturari eskaintzen dizkion aukerez eta torturaren aurka martxan jarritako protokoloen funtzionamenduz (Protocolo Garzon, Ertzaintzak eskaintzen duena...) hitz egingo dute, besteren artean. Bestalde, torturak uzten dituen aztarnak ere aztertuko dituzte.

» TORTURATUEN AURKAKO EGUNA

Otsailak 12, ostirala

■ **19:00.** Atxulondo Kultur Etxean *Tortura* eta *gerra zikina* hitzaldia. 2009. urtean jasan duen eskualdeko lekuko zuzena izango da.

Otsailak 13, larunbata

■ **09:00.** Lehengo Joxe Arregi eta gaurko Pausu plazatik abiatuta mendi martxa egingo dute. Haizetxun lore eskaintza eta 12:00etan, plazan ekitaldia. Jarraian Elkartearen bazkaria izango da.

ko, Manex Castro billabonatarra eta Pello Olanolizartza. Epailaren aurrean salatutako torturak, Villabonako Amnistia-aren aldeko blegan irakurtzeko aukera dagoela jakinarazi dute. Bestalde, ez dute ahaztu nahi izan auzoketarra den Juan Mari Mujika ustez polizia Espainiarrek bahitua zutela orain gutxi. Bestalde, «Tortura sistematikoa da eta atzean utzi ditugun hilabeteak dira esaten dugunaren adibide. 2009. urtean 45 euskal herritar torturatu dituzte Guardia Zibilek, Ertzaintzak eta Espainiar Poliziak», diote.

29. urteurrena dela eta, ostiralean hitzaldia izango da. Larunbatean, mendi ibilaldia Haizetxun lore eskaintza eginez. Jarraian plazan ekitaldia egingo dute eta bukaera bazkariarekin emango diote.



150 euroko txartel sariak banatuta

VILLABONA ■ Villabonako Oria Merkatal Elkarteak, atzo banatu zituen urtarilari dagozkion 150 euroko bi txartelak. Mari Kruz Barber eta Ana Rojas izan dira zortedunak. Otsailean eta martxoan ere, Villabonako dendetan erosketak egingen dituztenen artean sariak banatuko dituzte. Diru hori, Villabonako dendetan gastatzeko da. E. MAIZ



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Publizitate enpresa batek lan poltsa osatzeko KOMERTZIALAK behar ditu

Eskaizten da:

- Etorbizuneko proiektu batean parte hartzeko aukera.
- Baldintza interesgarriak.

Eskaizten da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dirramikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea.
- Komertzial arloan esperientzia izatea.

Kontuan hartuko da:


- Publizitate komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Gipuzkoa eta Bizkaiko tokioak ongi ezagutzea.

Curriculum Vitae zehatza bidali

gizabaliabideak@jarduna.net POSTA ELEKTRONIKORA

Elkarrizketa

MIREN GONZALEZ | Artista



«Guztiok dugu trukea egin ahal izateko zer eskaini»

Erakusketa Miren Gonzalezek 'Fiordoan trukea' proiektu jarri du ikusgai GKO galerian; truke sistema bultzatu nahi du herritarren artean.

ESTREIZIA-IRIGO TERRAZIOLOS Miren Gonzalez (Tolosa, 1973) artistak bere azken lana aurkezten du egun hauetan GKO Galerian. 'Fiordoan trukea' jarri du izenburu bere azken proiektuari. Aurreko lanekin apurtasun errealitatekin urrundu da eta abstrakzioa jodu tokosarak. Gainera, koadroak herriarregan hurbiltzeko truke sistema proposatzen du.

'Fiordoan trukea' proiektuaren, aurrekoarekin apurtasun nahi izan duzu.
Nire aurreko proiektuak oso koloretsuak ziren. Askotan siltatu izan naiz gauzak duari-beltzean egiten, edo kolore guztiagorekin, baina ezin izan nintzen nintzen. Orain honetan, kolorearen erabilerak nuen, eta ondorioz, energia eta intensioz beste alde batera zuzendu nuen, komposizioaren aldera esaterako. Honenbestez, bi edo hiru kolore erabili ditut nahiz eta tonu ezberdina asko sartu. Teknikoki lausoztean eta fluidoetan lan handiagoa egin dut. Halaber, ideia eta konposizioa gehiago landu ditut. Bestalde, aurreko nire proiektuetan erreplikapena erabili ditut, eta koadro guztiak irudi bera errepikatzen ziren, logika bat emaraz. Orainan berri, ez dut sistema hori erabili.

Aldaketak hau modu naturalaen etortu da?
Ez dakit ziur. Egia da aurreko proiektuetan beti errealitatean oinarrituta egin dudala lan, nahiz eta gero, emaitza, beti abstrakzioa izan. Proiektu honetan berri ez. Horesa ateratu da. Forma borobillekin hasi nintzen lanean, eta kolore hauak, azkenik, horrela ateratu da.

Lehendabizi ideia dago, eta gero hori garatuz jotzen zara.
Esterako, tela batean, leintzean, frogatzen hasi nintzen. Hauetan, askoz ere hasiago eta askatasun gehiago dabilen artean naiz, gaitziki ateratu gero, ez delako ezer gertatzen. Horrek freskotasuna ematen dio nire lanari. Gero, horri aukeratu jaten naiz, kontu gehiagoz, erakunde, koadroak egiteko.

Zenbat denbora behar da horrela lan bat egiteko?
Askok, teknikoak koadro hauak denbora asko eskatzen baitute. Oleeak dira, eta lausozteak egiteko lan handia egin behar da dago. Ondorioz, egina gaitziki, behin eta berriro erreplikatu behar da, gero lehorrean utzi eta albar. Bolumena emateko bi kolore elkarri egin behar dira, eta horretarako, lausotu egiten ditut.

Jabier Muguruzaren musika entzungi dago galerian.
Niretzat garrantzitsua da, sormen prozesu guztiak hor izan baititut bere musika. Muguruzaren kantuek puntu batean jartzen ninduten, eta jarraipen bat ematen zion proiektuari.

Aurretik ezagutzen al zenuen bere musika?
Ez, ez nuen ezagutzen. Honekin hasi nintzenen eragintza nuen, eta oso polita izan zen. Gainera, kolore hotzak erabili ditut margoak egiteko, eta 1999an kaleratutako bere diskoaren izenburua erabili zenean, nire lana izendatzeko, oso egokia.

«Ez dut errealitatea onirari izari, formatik abiatu naiz, eta kolore hotzagoak erabili ditut»
Irudizko zirkulazioan. Berari eskatu nion eta hiete esan zidan.

Proiektu honetan, aurreko beste biren eragina ere nabaria da.
Artista bat beti aurrerantz doa, baina beti nabari da aurrekoen kutsua. Alde batek, Indian sei hilla-betez egon ondoren, hemen bi urtean landu nuen lana. Teknikoki oso konplexua zen lanu. Gero, horrek inamaitu ostean, koadro espresibagoak egin nituen, aurrekoekin teknika horrenbeste lan-tzearekin, pixka bat nekaturatuz nengoelako. 'Fiordoan trukea' bien elkar-keta da. Espressibitatea eta Indian erabiltzen dituen teknika tradizionala uztartzen ditua nolabait.

Aden urteetan egindako bidaiak eragin handia duzue zure lanetan.
Bai, noski. Hemen ez da ikusten baina besteetan beti silatu izan da. Nonbaitera jotzen naizenean, hanga teknikatik ideia hartzen zara, denak dukalgia zerbitzua kaintzeko.

Truke sistemarekin lotu zuzure azken proiektua.
Erakusketa bera bi zatitan banatu nahi izan dut. Alde batek, 'Fiordoan trukea' erakusketa bera dago, eta besteak, bulgepicoa, trukearen ideia gurtuazalaren.

Nondik sortu ziltzuzen trukearen ideia?
Trukean deskonfiantza bizi izan gara. Nik behintzat lagunekin askotan egin izan dut. Azaroan Parisen erakusketa bat jarri nuen, eta hamar eguneko zuzen egin beharra zuten. Buzurri bihurtu ematen hasi nintzen, eta e-mail ezaguneko proposatu nien, aldatuta koadro baten trukean aldatzea. Honek, zerbait proposamen egin zizkidaten, eta ikusi nuen sistema horiek funtzionatzen zuela. Horri, abiatu, ibar-keta txiki bat egin hasi nintzen, eta jakin nuen, Argentinan asko erabiltzen zela, eta Zarautzen ere egin zela horrelako sistema bat.

Trukea, gauza materialak in egiten al du?
Materiala izan daiteke, edo lana, hau da, denbora eta bankua ditzutenak. Nik nire lanean buruzko bat egin dut, eta proposatzen dudana da, behar du lanean araberik, aldatzea egitea. Modu horretan, nire artearen truke, behar egin ditut, instalazio elektriko bat jarri, izan denak, le-egindakig zerbitzua eman epe batez, fruta eskari bat astero urtebetz.

Zain da sistema honen helburua?
Honekin, obra original baten erakunde ematen diotzu kaleko jendakari. Edozeinek, bere lanarekin, eta interesak bada, trukea egin dezakegu. Galdera polita da bai-otzak bere buruari egiteko: ezer daukat eskaintzeko? Askori urdi ere jarzen dira, pentinatze, baina hitz egin jarri zere, oharitzen zara, denak dukalgia zerbitzua kaintzeko.

Atxik jolas-joko-kirolariri, atxik herriari!




Atxik herriko jolas-joko-kirolariri, atxik herriari! Erosi DVDa otsailaren 13an eta 14an

Atxik herriko jolas-joko-kirolariri, atxik herriari! Erosi DVDa otsailaren 13an eta 14an. Berria logo and other promotional text.



Emaitza abstraktagoa izan du Miren Gonzalezek azken lanak...



10.000 kiloko erronka gaindituta

ELKARTASUNA Bukatu berri da sahararen aldeko jarraitutako kanpaina. Pasa den hilabetearen hasieran ekin zituzten Piztu Itxaropen kanpaina eta hilabete inguru iraun du. Euskal Herriko hainbat herritan egin ditute, eta Tolosan Sahararen aldeko kanpaina bultzatu eta koordinatu du, urtero bezala, ekimena. Aurten 10.000 kilo biltzeko erronka jarri zuten, eta iritsiko ez zirenean usteko zuten arren, sahararen zorienerako, muga gainditzea lortu dute. Hain zuzen ere, herenegun gauetan egon ziren elkarreko kidak bildutako jakik eta materiala kamioian kargatzen saharar kanpalekuetara bidaiatu zuten.

Rojo anaiak irabazle Marxa Beret-en

Kirola Joseba Rojo 42 kilometroko bilbidean izan zen lehena, eta Imanol anai, berri, 21 kilometroko proban.

Rojo anaiak postumean...

ERREDAKZIOA Pirinioetan eginen diren iraupen eskiko marxa jendetsu eta ospetsuek egin zuten iragan egunetan, Marxa Beret izeneko hain zuzen. Rojo anaiak kirolarekin parte hartu zuten bertan, eta irabazle izan ziren. 10, 21 eta 42 kilometroko lasterkerak antolatu zituzten, eta 1.300 lagun izan ziren desera, tartean euskaldun ugari, eta baita eskualdekoak ere. 42 kilometroko bilbidean egin zuen Joseba Rojo, eta irabazle egin zuen, bigarrenari lau minutu aldes ateraz. Joseba Rojo, azken emaitza honekin, marka berri ezarri du, izan ere, Marxa Beret-eko hiru distantzietan irabazle izan da 2006an 10 kilometroko, 2008an 20 kilometroko eta aurtun 42koan. Bestalde, bere anai Imanolek 21 kilometroko bilbidean egin zuen, eta bera izan zen garaile. Joseba anaiaren bide beretik doala esan daiteke, 2008an 10 kilometroko marcan irabazle izan baitzen, eta aurtun 21 kilometroan. Alpino Uzturre elkarteko kide gehiagok ere hartu zuten parte, eta emaitza onak lortu zituzten; Xabier Saizar, esterako, 10 kilometroko bilbidean lagurren geratu zen, eta Lourdes Irastza eta hamaigarren, 21 kilometroan.

Advertisement for 'sarrerak' (tickets) for 'AKABA BERA BERA VICAR GOYA COPPERT' and 'LAGUN ARO GBC C.B. MURCIA'. Includes contact information for ticket sales.



Lapurdi inguruko kultura eta kobak ezagutzeko aukera

Ibarra » Bi ibilbide antolatatu dituzte: bata lau ordukoa eta bestea motzagoa, haurrekin joan nahi duenarentzat.

ERREDAKZIOA

Euskal Herriko kobazulo maitatuenetakoak ezagutzeko aukera jarri dute mahai gainean Ibarra bi taldek.

Hilaren 28an, igandean, mendi irteera egingo dute Urdazubi-Zugarramurdi-Sara inguruan.

Lapurdiren txanda

Geurea Ikurrina! lelopean, Bai Eskal Herriari eta Haitzetan Raju mendi taldeak, Lapurdira ibilaldia antolatu dute.

Oraingoan Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako kobak ikusiko dituzte. «Jakingo duzuen bezala, sorgin, akelarre eta xarma ikaragarri bustitako inguru hauek interresgarri bezain ezezagunak dira gehienontzat, beraz, ez galdu aukera bikain hau», aipatu dute antolatzaileek. Bete bezala adin guztietako jendea elkartzeko da, eta giro

ezin hobez gozatu ahal izango dute.

Gainera antolatzaileek, «inorkanpoan gera ez dadin», bi ibilaldi prestatuko dituzte, bata luzexagoa, 4 ordu ingurukoa, eta bestea motzagoa, haurrekin joan nahi dutenentzat «edota antolatzaileak bezain alferrak direnentzat».

Kultura ere landuko dute

Ibartarrek azaldu dutenez ez da mendi itzulia bakarrik izango, kultura mailan ere ongi prestatu baitute ibilaldia: «gure *xerpek* bertako gertakizun ez informazio ugari bildu dute, eta nola ez, amaieran modu bat egiteko aukera izango da, beraz, ez eman jan gehiegi».

Hitzordua hilaren 28an da eta 08:00etan elkartzeko dira Ibarra plaza.

Deialdi berezi bat ere egin nahi izan diete TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA-ren irakurle lapurtarrei: «Badakigu egunkari honek bertan irakurleak dituela, beraz, hauek ere ibilaldira gonbidatuak aurkitzen dira. Harremantetan jartzeko deitu lasai ondorengo telefono zenbakira: 652-7158 00».

Ondoren Xiberoa

Haitzetan Raju eta Bai Euskal Herriari herri ekimenak hurrengo ibilaldia martxoaren 13-14ean egingo du.

Asteburu honetan Xiberoa joango dira. Iaz bezala, aurten ere lo egiteko apeztekoa lotu dute. Iaz ez bezala, hala ere, aurten mendiren bat igotzea izango da batzuen helburua: «Elhujarre mendia igotzeaz gain, bertako kulturaren sakontzeko aukera ezin hobea edukiko dugu. Santa Engrazin lo egingo dugu eta larunbat arratsaldean bertako musikaldi bat ikusteko aukera izango dugu. Igandean, horren ospetsua den Maskarada ikustera joango gara».

Antolatzaileen esanetan, guztia antolatu ahal izateko izena aldeztatik ematea komenigarria da. Horretarako bi aukera eskaini dituzte: Tolosako Denak tabernara joatea edota 652-71 58 00 telefono zenbakira deitzea.

Azken mezua inguruko herritar guztientzat igorri nahi izan dute ibartarrek: «utzi lotsak eta aitzakia merkeak etxean eta animatu! Antolatzaileentzako pastak ere eskertuko dira».

Gutunak

Leitzak erosi Ibero?! Ze, Gineserako?!...

Honek Gineserako balio lezake, bai. 2010eko otsailaren 4ko Ttipi-Ttapak, 42. orrian, hauxe dio Leitzako Udala proiektuei: «*Ibero ingurua erostea izanen da inbertsiorik nagusia*».

Aldiberean badu Leitzako Udala, Suteen Elkartekoei bakarrik bidalitako orria, eta hartan esaten zaie kideei, Udalak eskeintza egina diela 227.000 eurotan, baina, nahiago lukeela Ibero doan itzuliko balio. Sekulan ez dut holako markarik ikusi. Haur bati esatea bezala baita: «*inbertsiorik handiena zurekin egingen dugu: tona 227.000 euro goxoki honengatik, baina, nahiago nuke doan emanen bazenit*». Ez al da Gineserako?...

Ez naiz luzatuko. Interesik baduzu, bila glooglen «*Ibero sutan, eta denak isilik*» artikulua, eta leitu faborez. Hitzokintxe bukatzen nuen: «*edozein interes pribatu saihestuz, komisio zorrotza sortu*

beharko luke Udalak, lotsagatik ere, auzi absurdo hau lehenbailen likidatzeko. Inork ez baitu horretarako, ez eta Elkartek berak ere, Udalak adinako autoritate moralik».

Ez alferrik! Bistan baita Suteen Elkartek titerea bezalaxe darabilela Udala. Bai, badirudi lasartarrekin Udaletik 1892an ateratu zuten mahuka hura, orain, berriz atzera, lasartarren mahuka bihurtu dela Udalean bertan, baina mila bider ustelagotua. Zergatik? Orduan kasik Leitzaguzia baitzen elkarteko kide, eta inolako animolukratiborik gabe; gaur ordea ehunetik bat ere ez, eta hura animo lukribo lotsagabe hutsarekin, gainerako %99 leitzarroi burla eta iruzur garbia eginez.

Eta gure interesak, %99 leitzar zerga pagatzaile soilonak, norik zainduko ditu? Leitzan bertako politikoei? Iruñeko Kontu Ganbarak?... Ez du itxura handirik.

Patziku Perurena, Itzaideko txabolatik. Leitza.



P. PERURENA



Istripua Areso noranzkoan

LEITZA • Auto batek istripua izan zuen atzo 11:00ak inguruan Leitzako errepidean. NA-170ean gertatu zen istripua, gasolindegitik metro gutxira. Auto batek kontrola galdu zuen eta iraulita gelditu zen Leitzatik Areso noranzkoan. Gidaria mediku zerbitzuek eraman zuten. Zirkulazioa berriz, autoa kendu bitartean, Guardia Zibilak bideratu zuen. ASERIMAZ



Lapurdiko irteera antolatu duen *xerpetako* bat. Irudian, Arabako irteeran argibideak ematen. A. IMAZ

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



» INAUTERIETAKO EGITARAUAK HERRIZ HERRI

TOLOSA

Ostegun Gizena, bihar

- **09:13.** Etxe-berriko oinordekoen Udal Bandoa.
- **11:30.** Udal Txistulari Bandak Inauterietako Zortzikoa joz egingo du ohiturazko ibilbidea.
- **11:45.** Kabi-Alai elkarteko korporazioaren pregoia.
- **12:00.** Plaza Zaharrean, txupinazoa jaien hasiera iragartzeko.
- **12:00.** Pintxana eta Kabi-Alai txarangaren irteera, Arostegieta kaletik.
- **16:30.** Zezen Plazan xexen-festa, Pintxana eta Kabi-Alai txarangek alaitua. Ondoren, kalejira.
- **23:00.** Aurrera Kirol Elkartearen danborrada.

Ostiral Mehea, etzi

- **12:00.** Ozenki Txistulari taldearen kalejira.
- **16:30.** Zezen Plazan xexen-festa, Kabi-Alai txarangek alaituta. Ondoren, kalejira.
- **20:00.** Arpegi Taldeak antolatuta, Ostiral Mehe eguneko jaialdia Leidor aretoan.
- **22:45.** Ostiral Mehe eguneko danborrada.

Zaldunita Bezpera

- **10:30.** Erraldoi eta buruhandiak. Irteera Plaza Zaharretik.
- **11:30 eta 17:00.** Kabi-Alai elkarteko txarangaren irteera.
- **11:45.** Dantzari txikien kalejira abiatuko da Triangulotik.
- **17:00.** Haur Danborrada aterako da Santa Maria Kaletik.
- **19:00.** Tolosako danborradaren irteera Geltoki kaletik.
- **23:00.** Iraunkorrek eta Oriako txaranga kalez kale.

Zaldunita

- **08:00.** Diana, Tolosako Musika Bandarekin.
- **08:45.** Herriko txistulari bandak ohiturazko ibilbidea egingez Inauterietako Zortzikoa joko du.
- **10:00.** Txarangaren irteera.
- **10:30.** Plaza Berrian sokamuturra Aiz-Orratz txarangek alaituta.
- **11:00.** Karroza eta konpartsen irteera.
- **15:45.** Udal Txistulari Bandak Idiarena pieza joz egingo du ohiturazko ibilbidea.
- **16:00.** Kalejira Txapel Haundi, Sukalde eta Alcoyano txarangekin, Plaza Zaharretik Zezen Plazaraino.
- **16:30.** Zezenak Zezen Plazan; txaranga eta txistulariak ariko dira. Ondoren kalejira.
- **19:00.** Dantzaldia Berdura Plazan Txapel Haundi, Sukalde eta Alcoyano txarangekin.
- **23:30.** Incansables eta Oriako txaranga kalez kale.

Astelenita

- **09:00.** Txarangaren irteera.
- **10:30.** Plaza Berrian sokamuturra Poca Tripa txarangek alaituta.
- **11:00.** Karroza eta konpartsen irteera.
- **16:00.** Kalejira Tolosano, Poca



Talai dantzariak ere dantza egingo dute. HITZA



Txarangek ez dira faltako; gogotik egingo dute lan bihartzik aurrera. I. GARCIA

Tripa, Tolosano eta Arco Iris txarangekin, Plaza Zaharretik Zezen Plazara.

- **16:30.** Zezenak Zezen Plazan; txaranga ariko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren kalejira.
- **19:00.** Dantzaldia Berdura Plazan Tolosano, Poca Tripa, Tolosano eta Arco Iris txarangekin.
- **21:30.** Iturritxiki Plazatik zezen-suzkoa irtingo da.
- **23:30.** Plaza Berrian Lain eta Hesian taldeen kontzertua.
- **23:30.** Incansables eta Bonberenea txaranga kalez kale.

Astearrita

- **06:00.** Udal Txistulari Bandak Alborada joko du udaletxeko arkupean, Berdura Plazan eta Felipe Gorriti Plazan.
- **08:00.** Pattar-zezena Zezen Plazan. Ondoren kalejira.
- **10:30.** Plaza Berrian sokamuturra, Aiz-Orratz txaranga alaituta.
- **11:00.** Karroza eta konpartsen irteera.
- **15:45.** Herriko txistulari bandak, ohiturazko ibilbidea egingez, Idiarena pieza joko du.
- **16:00.** Kalejira Urdiña Txiki, San Esteban eta Kabila txarangekin, Plaza Zaharretik Zezen Plazara.
- **16:30.** Zezenak Zezen Plazan; txaranga eta txistulariak ariko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren kalejira.
- **19:00.** Dantzaldia txarangekin Berdura plazan. Bertan parte har-

tuko dute ondorengo txarangek: Urdiña Txiki, San Esteban eta Kabila.

- **23:30.** Incansables Zaharrek txarangen irteera.
- **24:00.** Sardinen hileta konpartsen irteera Gure Txokoa elkartetik.

Otsailak, 21: Piñata Igandea

- Urteroko ohiturari jarraituz, Poca-Tripa txaranga eta Txilaba Elkartearen konpartsa lurreamen-di Egoitzara joango dira.

TOLOSAKO TXOSNAK Ostegun Gizena, bihar

- **12:00.** Txupinazoa eta txistorrada

Ostiral Mehea, etzi

- **18:00.** Irekiera.
- **22:30.** Kontzertuak Namec planet (Elorrio) eta Darling shoes (Soraluze).

Zaldunita Bezpera

- **18:00.** Txokolatada.

Zaldunita

- **16:00.** Irekiera.
- **19:00.** Bonberenea txaranga txoznak alaituz.

Astelenita

- **16:00.** Irekiera.

Astearrita

- **16:00.** Irekiera.

ABALTZISKETA Otsailak 11, bihar

- **15:00.** Emanaldia frontoian. Zirkoz mozorrotuko dira.

Otsailak 14, igandea

- **08:00.** Txantxoak herriko plaza-tik abiatuko dira baserriz baserri dantzak egingez.
- **10:30.** Meza ondoren, plazan emanaldia egingo dute txantxoek. Ondoren herriaren beste aldera zeharkatuko dute emanaldiak egingez.
- **13:00.** Meza ondoren, Larraitz auzoan emanaldia egingo dute txantxoek.

ADUNA Otsailak 12, etzi

- **14:45.** Eskolako emanaldia: antzerkia, dantza, txistea... izango dira. Bukaeran merienda egingo dute.

ALBIZTUR Otsailak 11, bihar

- **11:45.** Emanaldia plazan edo frontoian eguraldi txarra egiten badu.

ALKIZA Otsailak 11, bihar

- Goizean herriko plazan jolasak eta hamaiketako egingo dituzte. Gurasoak gonbidatuta daude. Aurten gaia lanbideak izango da (sukaldariak, suhiltzaileak, nekazariak...).

AMEZKETA Otsailak 12, etzi

- **15:00.** Eskolatik atera eta kalejira egingo dute plazaraino. (eguraldi txarra frontoian geldituko dira). Gero guraso elkarteak merienda.

Otsailak 14, igandea

- **09:00.** Talai dantzarien saioak herrian zehar.

Otsailak 15, astelehena

- **09:00.** Talai dantzarien saioak Bediai inguruan eta Amezetakodi baserrietan.

ASTEASU Otsailak 12, etzi

- **15:45.** Desfilea egingo dute, herrian bi geldialdi egingez. Bigarren-goan zortzikoa dantzatzeko dute. Lamiteri zelaian gurasoek egingiko Mielotxin erraldoia erreko dute. Ondoren merienda.

BERROBI Otsailak 11, bihar

- Goizean zehar jolasak eskolan.
- **11:30.** Eskolako emanaldia jolaslekuan. Ondoren txorizoa banatuko dute. Gaia indioak izango da.

BIDEGOIAN Otsailak 11, bihar

- **10:15.** Desfilea egingo dute Bidaniatik Goitzera. Han hamaiketako.
- **12:00.** Bidaniako frontoian emanaldia.

IBARRA Otsailak 11, bihar

- **11:00.** Ikastolatik abiatuko dira plazara eta bertan emanaldia egingo dute. Gero txorizoa banatuko dute. Aurtengo gaia akelarrea izango da.

IKAZTEGIETA Otsailak 11, bihar

- **15:00.** Eskolako emanaldia gimnasioan, gurasoei zuzendutako.

VILLABONA Otsailak 11, bihar

- **15:15.** Jesusen Bihotza ikastola-koen dantza saioa plazan. Ondoren, Villabonako kaleetan zehar joango dira txarangekin batera Santiago Zahar Egoitzaraino. Handik plazaruntz abiatuko dira eta amaitzeko plazan askaria banatuko dugu. Aurten gaia akelarrea da.

ZIZURKIL Otsailak 12, etzi

- **15:30.** Zizurkilgo ikastolan hippiz mozorrotuko dira. Desfilea izango da lehendabizi eta bukatzeko dantza emanaldia plazan.



Berrobini iaz eskeleto mozorroa aukeratu zuten; aurten indioz aterako dira. A.I.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdia

■ **Leitza.** Leizaldeko Bilgune Femenistak elkarretaratzea egingo du gaur 20:00etan biribilgunean he-renegun Barakaldon eraildako emakumearengatik.

Lehiaketa

■ **Aduna.** IV. Poltsikoko Antzerki Lehiaketa profesional zein amateurrentzat. Oinarriak eta izen ematea: www.asvineneako.com.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga M. Martin Jose Iraola, 10. 943-67 24 38.
■ **Leitza.** Campos M.Z. Elbarren 52. 112.

» TELEBISTA

28 Kanala

08:30. Ur eta lur.
09:00. Alex eta Alexis.
09:30. Tolosaldean Gaur.
10:00. Klik.
10:30. Ilunpean.
11:00. Erlo klip.
11:30. Tolosaldean Gaur.
12:00. Kiroleroak.
12:30. Zahar berri.
13:00. Muka muka.
13:30. Tolosaldean Gaur.
14:00. Klik.
14:30. Ilunpean.
15:00. Erlo klip.
15:30. Tolosaldean Gaur.
16:00. Kiroleroak.
16:30. Zahar berri.
17:00. Muka muka.
17:30. Tolosaldean Gaur.
18:00. Kafe t' erdi.
18:30. On ein!
19:00. Sakonduz.
19:30. Tolosaldean Gaur.
20:00. Kultur zulo.
(*16:30etik 20:00etarako blokea lau orduro errepikatuko dute)

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Danborrada doinuak Berdura plazan

TOLOSA ■ Inauteri kontzertu polita eta jendetsua izan zen igandekoa Berdura plazan. Txistulariek girotu zuten hasiera eta ondoren Musika Bandak jendea saltoka jarri zuen. Bukaeran, Juan Colmenero omen-du zuten Bandak, Danborradako doinuaren 50. urteurrenean. Itziar alabak jaso zituen Jokin Bildarratz alkateak Udalaren izenean eta Bandako kideek emandako opari eta loreak, eta Jose Javier semeak (Bandako kidea, argazkian) zuzendu zuten Danborradako doinua. Azken pieza Sasikoapatsua izan zen. PABLO DENDALUZE

A Agurrak



Sugaar Zapirain Larrañaga.

Otsailaren 6an jaio nintzen Euskal Herri tik urrun, hala ere nire herrian hazi, hezi, jolastu, ikasi eta askatasunean eta bakean bizitzeko itxaropena ez dut galtzen. Gure senide preso eta iheslari guztiak Euskal Herrian aske bizitzeko duten eskubidea errespetatu arte JO TA KE!



Zorionak ezkonberrie!

Patri eta Igor.

Kuadrilaren partetik egun ona pasa!

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P,K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	